

ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEA

GAIA: 5/2015

(...) ANDREAK, ZEINA (...) ZUZENDARIA BAITA, (...) INTRUKZIO-EPAITEGIAN TRAMITATZEN ARI DIREN AURRETIAZKO EGINBIDEETAN INPUTATU GISA ENTZUNA IZATEKO JASO DUEN ZITAZIOAREN GAINEAN EGIN DUEN KONTSULTARI BURUZKO ERABAKIA.

1.- Interesdunak, zeina (...) zuzendaria baita, 2015eko martxoaren 27an, idatzi bat igorri zuen Etika Publikorako Batzordearen (EPB) postontzi elektronikora, eta idatzi horretan kontsulta bat egiten du, Etika eta Jokabide Kodearen (EJK) 15. artikuluko 5. puntuan arautzen duenari erreparatuta, (...) Instrukzio Epaitegian tramitatzen ari diren aurretizko eginbideetan inputatu gisa entzuna izateko jaso duen zitazioaren gainean.

2.- Idatzi horretan, kontsulta-egileak adierazten du (...) Saila, “gutxienez” 1995etik, “modu berean” ordaintzen ari dela (...) zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainak, berariaz aurreikusita daudenak (...) egoeratarako, eta joan-etorrien gastuak eta mantenu-dietak barne hartzen dituztenak. Garai batean, “Herrizaingo Sailaren barne-arau batzuek” arautzen zituzten, eta gaur egun –interesdunak egindako kontaketa-aren arabera, betiere–, (...) Dekretuak, zeina langileen zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzkoa baita, arautzen ditu zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei horiek. Arau horrek, gaur egun, indarrean jarraitzen du, haren aurka ez zelako denbora- eta forma-baldintzak betetzen zituen errekurtsorik jarri eta hura argitaratu ondoren ez delako aldatua edo indargabetua izan. Haren edukia, bestalde, “negoziazio-mahaian adostu zen”.

3.- Aurrerago, gertakari horri buruzko kontakizuna egitean, idatzi horrek adierazten du Dekretuak kalte-ordain bat jasotzeko eskubidea aitortzen diela (...) -ei, baldin eta gastuak izan baldin badituzte “Sailak haien eskura ibilgailu ofizialik jarri ez, eta zerbitzua emateagatik joan-etorriak egin dituztelako”. Era berean, arautzen du konpentsatu egingo zaizkiela jatorduetako edo mantenu-dietetako gastuak, “zerbitzuan jarduteagatik ordutegi zatituko jardunaldiak egiten direnean”.

Langile-talde horrentzat kalte-ordainak jasotzeko erregimen berezi hori ezarri da, eskala horietako lanpostuek “arduraldi osoko” erregimena eta “izendapen askeko” hornitze-sistema bat dutelako ezarria.

4.- (...) Instrukzioak garatu du gaiari buruzko araudia, eta aldatua izan da gerora, zenbait alderdi formaletan bada ere, honako data honetan: . Hauxe arautzen du instrukzio horrek – kontsultaren egilearen esanetan– kalte-ordainak izapidetu eta ordaintzeko alderdietan:

“gastuen konpentsazioa eskatzeko, inprimaki egokiak bete behar dituzte langileek, eta inprimaki horiek eskatzailearen sinadura, hierarkian haren gainean duen pertsonarena (nahitaezkoa da azken horrek ontzat ematea zerbitzuaren beharrezana egiaztatzeko) eta zentroan giza baliabideez arduratzen den langilearena izan behar dituzte”.

5.- Sailari 2013. urtean bidali zizkion idatzi bat baino gehiagotan, eskaera hau egin zion (...) sindikatuak Giza Baliabideetako Zuzendaritzari: “ez ordaindu izaera orokorrez (...) -ri bidaien eta jatorduen ondoriozko kalte-ordainak”. Kontsulta-egileak hau adierazi du: “ezin izan zen eskaera hori bete, indarrean dagoen arau bat ez betetzea eskatzen zuelako, eta ez delako, gainera, haren aurkako errekurtsorik jarri; era berean, bere garaian ez zen errekurtsorik jarri eta ez ziren ezbaian jarri kalte-ordain horiek arautu dituzten arauak eta instrukzioak”.

6.- Sailaren erantzuna jaso ondoren, administrazioarekiko auzien jurisdikziora eta Herri Kontuen Epaitegira eraman zuen gaia sindikatuak. Legebiltzarreko talde batzuk ere agertu zuten interesa, 2014. urtean, kalte-ordain horien gainean. Talde mistoko UPyD alderdiak dokumentu bidezko informazioa eskatu zuen, eta talde Popularrak idatziz erantzuteko galdera bat egin zuen. Sailak behar bezala eman zien erantzuna bi ekimen horiei; izan ere, kontsulta-egileak adierazten duenez, “legebiltzarreko taldeek ez dute legebiltzar-ekimen berririk abiarazi gai horren inguruan”.

7.- Administrazioarekiko Auzien (...) Epaitegiak erabaki zuen administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, eta emandako epaiak ezetsi egin zuen erreklamazioa, errekurtsoa jarri zuen sindikatuak legitimazio aktiborik ez zuelako; hala, berretsi egin zuen errekurritutako ebazpena. Hala ere, partikularren testigantzak Instrukzio Epaitegi eskudunera eramatea erabaki zuen epaiak, oharpen hau egin ondoren: “kasu honetan, Instrukzio Epaitegi eskuduneari instrukzio-eginbideak abiaraztea gomendatzen duten elementu batzuk ikusten dira, eta eginbide horien xedea izan behar du izaera penaleko arau-urratzerik egin den egiaztatzea, eta, zehazki, argitzea zer kontzeptu zehatzetan ordaindu diren ordaindutako diru-zenbatekoak, zer pertsonak jaso dituzten zenbateko horiek, ordaindu diren zenbatekoak bikoiztu ote diren, lan pertsonalaren etekinak ezkutatu ote zaizkion Ogasunari (dieta horiek nominetan jaso ez direlako) eta funts horiek erabili ondoren bi urte igaro direnean batere kontrolik egin ote den ikustea”.

8.- Auzia (...) Instrukzio Epaitegiari esleitu zitzaion, eta aurretiazko eginbideak abiaraztea eta 2012, 2013 eta 2014 urteetan ordaindu ziren kalte-ordainei buruzko dokumentazioa eskatzea erabaki zuen organo horrek. Interesdunak adierazi du, horren harian, 2013ko urtarrilean izendatu zutela zuzendari. Gerora, Sailak hasiera batean igorri zion dokumentazioa handitzeko eskatu zuen Epaitegiko epaileak, eta, azkenik, kontsulta-egilea deklaratzera deitzea erabaki du; eta zitzazio hori da, hain justu, gai hau Etika Publikorako Batzorde honetara igorri izanaren arrazoa.

9.- Sindikatuak Herri Kontuen Epaitegian jarri zuen salaketari erreparatzen dio EPB honi kontsulta egiten dion idatziak, eta adierazten du salaketa hori izan zela Estatuak

fiskalizazioaren alorrean duen goi-organo horrek (...) aurretiazko jardunbideak abiarazi izanaren oinarria. Organo horren baitan, instrukzio-egileak behin-behineko likidazio-akta egin zuen (...) datan, eta honako hau adierazi zuen akta horretan: “arauzkoak dira salaketaren xede diren dietak, prozedura baten baitan eman dira eta justifikatu egin dira kalte-ordaindu daitezkeen kontzeptuak eta lanbide-identifikazioko zenbakiarekin lotu dira haien hartzaileak, kontzeptuak eta zenbatekoak”, eta ondorioz, “salatu diren gertakariak ez dute kontularitzako erantzukizunik sorrarazten, ez baita kalte egiazko, gauzatu eta banakaturik egin izana hautematen Eusko Jaurlaritzaren funtsetan”.

Hori horrela, hauxe da EPB honek, 16.4 artikuluko bigarren idatz-zatiak adierazten dituen tresna telematikoak baliatuta, hartu duen

ERABAKIA:

I.- AURREKARIAK

1.1.- Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an onartu zuen Etika eta Jokabide Kodea, politikaren etika-zentzua berreskuratzeko eta herritarrek erakundeengan duten konfiantza berreskuratzeko asmoa hartuta.

Xede horiek betetzeko, Etika eta Jokabide Kodearen asmoa da identifikatzea zer jokabide eta portaera eska dakizkiekeen Eusko Jaurlaritzako goi mailako zuzendaritza betearazleko kide diren kargu publikoei eta antzekoei, haien jarduera publikoak eta pribatuak guztiz bat etor daitezten dokumentu horretan aurrez zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua da osotasuna eta eredugarritasuna sustatzea, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordez, haren eraginkortasuna sendotuz eta herritarren erakundeenganako konfiantza gutxitu ez dadin ahalegina eginez.

2.- Etika eta Jokabide Kodearen bost balio ditu ardatz: integritatea, bikaintasuna, politikaren eta kudeaketaren artean lerrotatzea, lidergoa eta berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio ditu: inpartzialtasuna eta objektibotasuna; kudeaketari lotutako erantzukizuna; gardentasuna eta gobernatze irekia; onestasuna eta desinteres subjektiboa; errespetua eta eredugarritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu. Hain zuzen, EPB honek haiek erreferentziatzat hartuta jardun behar du, beren borondatez Kodearekin bat egiten duten kargu publikodunek eta antzekoek zein bere xedapenak eraginkortasunez betetzeko interesa duten gainerako pertsonen helarazitako gai eta zalantza etikoei erantzuteko.

3.- Horretarako, Kodearen 16.3. artikuluko lehen idatz-zatiak araututakoaren arabera, EPB bera da organo eskuduna «Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio zein jokabideen balizko ez betetzei buruzko keak edo salaketak jasotzeko, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzeko».

II.- EPB-K AZTERTZEKO AURKEZTUTAKO GAIA

1.- Etika Publikorako Batzorde honi kontsulta egin izanaren arrazoi nagusia da aurretiazko eginbideak izapidetu direla Instrukzio Epaitegian, interesdunak entzuna izateko zitazioa jaso baitu, “itxura batean ondasun publikoak bidegabe erabili izanaren delitu diren ekintzak egin izanaren erantzule gisa”.

2.- Etika eta Jokabide Kodearen 15 atalak, zeina “eredugarritasunari eta kanpoko beste adierazpen batzuei buruzko jokabideak eta portaerak” izenekoak baita, hau arautzen du bosgarren puntuan: “kargu publikodunen bat edozein prozesu penaletan zein administrazio-zehapenetan inputatuz gero, karguari dagozkion egiteko publikoari lotutako gertaeren ondorioz, edota garrantzi publiko berezia duten ekintzen ondorioz, horren berri emango zaio Etika Publikorako Batzordeari, kasu bakoitzean egoki iritzitako gomendioak eman ditzan”.

3.- Xedapen horrek agintzen duenari lotuta, xedapen horrek azaldutako egoeraren batean gertatzen baldin bada kargu publikoren bat –prozesu penaletan zein administrazio-zehapenetan inputatuak izatea, karguari dagozkion egiteko publikoari lotutako gertaeren ondorioz, edota garrantzi publiko berezia duten ekintzen ondorioz–, “horren berri eman” behar dio EPB honi. Etika eta Jokabide Kodeak, ordea, ez du berariaz arautzen zer erantzun eman behar zaion kontsulta horri, eta esaten duen gauza bakarra da, horrelako egoera bat gertatzean, “kasu bakoitzean egoki iritzitako gomendioak” emango dituela EPBk. Ikusten den moduan, araua ez dago erabat osatua; izan ere, egitatezko ekintza bat zehazten du, baina ez du modu zorrotzean xedatzen zer ondorio izango duen ekintza hori egiteak. EPB honen egitekoa da, kontsulta jaso ondoren, arau horren edukia integratzea, “kasu bakoitzean” zer egin behar den erabakitzeko. Horrek esan nahi du EJK-k berariaz ematen diola eskumena Batzordeari “kasu bakoitzean” egokien irizten duen erabakia hartzeko, eta kode horren balioak eta printzipioak izango dira erabaki hori hartzean izango dituen lotura-erreferentzia orokor bakarrak.

4.- Aurreko puntuan adierazitakoari gaineratuta, EJKren 15.5 artikulua arautzen du “prozedura izapidetzean” kargua kendu baldin bazitzaion kargudunari eta “egiaztatzen bada ez duela erantzukizunik”, hau egingo dela kargua kendu zaionarekin: “berriro emango zaio [...] edota dagozkion bitartekoen bidez errehabilitatuko da”.

Xedapen horien lehenengo eta gainera irakurketa eginda bestelakorik irudi dezakeen arren, agindu horrek ez du baliogabetzen gorago zirriboratu dugun interpretazioa; aitzitik, berretsi egiten du hura. EJK idatzi zutenek erabili zuten esapideak –“kargua kendu baldin bazitzaion”– argi eta garbi uzten du goi-karguari kargua kentzea, haien iritzian, aukera bat baino ez dela, hau da, EPBk eskura duen aukera-sortako beste aukera bat, eta ez, inondik ere, eskura duen aukera bakarra. Horregatik, hain justu, arautzen da, "egoera" jakin horretarako, derrigorrezkoa izango dela bidegabe karguaz gabetua izanaren errehabilitazio publikoa egitea. Horren guztiaren jakitun, ondorioztatu behar da Etika eta Jokabide Kodeak berariaz prozesu penal batean edo administrazio-zehapen batean inputatutako kargudunaren kautelazko kargugabetzea bakarrik aipatzen duen arren, “kasu bakoitzean egokiena” dela irizten duenean soilik proposatu behar duela EPBk neurri hori –eta ez besterik–.

5.- EPBren ebazpenek kasu honetan soilik erabili dute EJK-ko xedapen hori kasu bat erabakitzeko, 4/2015 Erabakian, konkurtsoko administratzaile izateko inhabilitazioa jaso zuen Jaurlaritzako kide bati buruzkoan. Baina egoera hartan ez genuen EJKren 15. artikuluko 5. puntu osatugabea integratzeko erronkari aurre egin eta “kasuari” egokiena zaion neurria proposatzeko premiarik izan, merkataritza-esparruan emandako ebazpena baitzen hura eta ez baitzen betetzen atal horretan azaltzen den egitatezko ekintza egindakotzat emateko eskatzen den baldintza nagusia, kodeak “prozesu penaletan edo administrazio-zehapenetan” inputatutako kargu publikoak soilik adierazten dituen aldetik.

6.- Kasu honetan, ordea, EJKren arau osatugabe hori integratzeko premia dugu, eta gainera, lan hori egin behar dugu oraindik adostu gabe dagoelarik, ez baitago horren gaineko planteamendu bakar eta orokorrean onarturik, zer prozesu-unetan egin behar dioten uko betetzen duten karguari edo bete nahi duten karguari, eredugarritasun-printzipioak hala eskatuta, prozedura penal eta administrazio-zehapenetan sartuta dauden pertsonak.

Eztabaida bizia eta interesgarria dago horren inguruan, pertsona batzuek esaten baitute pertsona bat prozedura penal batean inputatze soilak bateraezina izan behar duela betetzen duen kargua edo eskuratu nahi duen kargua betetzearekin, eta beste batzuek, berriz, esaten dute bateraezintasun hori ahozko judizioari ekiten zaionean jarri behar dela indarrean, inputazioak ez baitu zigor aurreratu bat izan behar, inputatua izan den pertsonaren irudia eta ohorea modu goiztiar batean lohituko duena, inputazioa berme-izaerako neurri bat delako, prozesu penalaren arautzaileak sortu duena balizko delitu-ekintzak egiteagatik esparru judizialean ikertuak diren pertsonak prozesu penal horretan abokatuen laguntzarekin bertaratzeko aukera izan dezaten (Prozedura Kriminalaren Legeko 118. artikulua).

7.- Baina eztabaida horretan bada hirugarren alderdi edo ikuspegirik; izan ere, zenbaitek uste du prozesu penalen edo administrazio-zehapenen tramitazioak kondena batez edo inhabilitazio-zehapen bat ezarriz amaitzen direnean soilik baldintzatu behar direla kargu publikoen izendapenak edo kargu publiko horien jardunaren jarraipenak. Eredu horren alde

egiten du martxoaren 30eko 3/2015 Lege berri-berriak, Estatuko Administrazio orokorreko goi-kargudunen jardura arautzekoak, haren 2. 25. eta 26. artikuluek arautzen baitute "ohoragarritasunaren" baldintza betetzen duten pertsonak bete behar dituztela goi-karguak, eta ezaugarri hori ez da galtzen, harik eta esparru judizial edo administratiboko agintaritzak kondena-sententzia irmo bat edo inhabilitazio-zehapen bat ezartzen duen arte.

8.- EAEko esparru instituzionalean, zaila da gai honetan erreferentzia gidari moduan erabil daitekeen irizpideren bat ezarri duten erakunde publikoak topatzea. Gai-alor horretako arau nagusia da ekainaren 26ko 1/2014 Legea, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen, baina ez du egoera zehatz honi buruzkorik arautzen. Arauaren lehen xedapen gehigarriko bigarren puntuak adierazten duen moduan, arau hori zati batean da lurralde historikoetako foru-aldundietako eta haien sektore publikoko kargu publikoei aplikatzekoa, baina arau horrek gai honen inguruan ezer arautzen ez baldin bada ere, foru-erakunderen batek bere irizpide propioa landu du aztertzen ari garen esparru honetan, eta hemen adierazteko modukoa iruditzen zaigu.

9.- Izan ere, alderdi politiko zenbaitek berriki onartutako etika-kodeek —esaterako, PSOE alderdiak 2014ko urriaren 10ean onartu zuen bere etika-kodea, eta kode horrek dimisioa aurkezteko betebeharra ezartzen die haren kargu publiko eta organikoiei, “prozedura penal batean ahozko judizioa abiarazten denean haien aurka” (5.2. artikulua)— ezarritako ildoari jarraitu diote Bizkaiko Batzar Nagusiek aurtengo urtarrilaren 13an hartu zuten erabakiaren bidez-. Erabaki horrek adierazten du lurralde historiko horretako foru-aldundiak hau egin behar duela: “kargu publikoak kargugabetu behar ditu, baldin eta ahozko judizio bat abiarazten baldin bada haien aurka ustelkeriarekin lotutako delituengatik”. Ez dugu ildo hori jarraitzen duen bestelako xedapenik ezagutzen euskal erakunde publikoetan.

10.- Gai horren inguruan, bestalde, premiazkoa da garrantzi handiko datu bat nabarmentzea, derrigorrean jaso beharrekoa erabaki honetan. Gaur egun zuzenketen fasean dago Diputatuen Kongresuan *Prozedura Kriminalaren Legea prozesu-bermeak indartu eta teknologia-ikeruntzako neurriak arautzearen aldatzeko Lege Organikoa* (Gorte Nagusien Aldizkari Ofiziala, Diputatuen Kongresua, X. legegintzaldia, A seriea, 2015eko martxoaren 20koa, 139-1 zenbakia), eta oraindik eman gabea den xedapen horren helburua da, haren zioen azalpenean adierazten den moduan, “gaur egungo egoerara egokitzea Prozesura Kriminalaren Legea, eta, bereziki, legeak maiz eta terminologiaren alorrean zehatza izan gabe erabiltzen dituen esapide jakin batzuk kentzea, hala nola inputatua eta erruztatua, hitz horiek erabiltzen baitira susmo hutsengatik ikertuak diren pertsonak (sic), oraindik zantzu nahikorik izan gabe pertsona horri ikuspegi judizialek eta modu formalean egozteko zigorgarria den ekintzaren bat egin izana”. Hizkuntza Juridikoaren Argitasunerako Batzordeak eskatu zuen aldaketa hori egiteko, eta hau zen eskaera horren xedea: “esapide horien konnotazio negatiboak eta estigmatizatzeak alde batera uztea eta prozesu penaleko faseetan gertatzen den egiazko egoerara egokitzea hizkuntza, arrazoi horiek bultzatu behar baikaituzte inputatu eta erruztatu hitzen ordez beste

egokiago batzuk jartzera, nola diren ikertua eta auzipetua”. Eta hitz horiek aldatzea proposatzen du, hain justu, lege-proiektuaren bigarren xedapen gehigarriak.

11.- Bi gogoeta hauek sorrarazten dizkigu, berehala, Gorte Nagusietan lege-erreformarako proiektu hori izate hutsak:

a) Proiektuak aurrera egiten baldin badu eta Gorte Nagusiek behin betiko onartuko duten testuak bere egiten baldin badu Gobernuak Diputatuen Kongresuari bidalitako proiektuan aurreikusten den terminologia-berrikuspen hori, aldaketa horrek arautzen dituen alderdietara egokitu beharko da EJKren 15. artikuluko 5. puntua, eta argi eta garbi arautu beharko da EPBri kontsultatzeko betebeharra ikertuei edo auzipetuei –proiektuak darabilen terminologia erabiltzearen– ote dagokien.

b) Proiektua tramitazio-fasean dagoen bitartean, ez dirudi bidezkoa alde batera uztea legegilea serio pentsatzen ari dela “inputatu” hitza “prozesu penaleko faseetan gertatzen den egiazko egoerara” egokitzeko aukera, “konnotazio negatiboak eta estigmatizatzaile” ugari dituen aldetik, helburutzat baitu aurretiazko kondena ia saihestezinik ez ikusaraztea; izan ere, prozesu penaleko fase horretan “susmo hutsengatik ikertuak diren pertsonak daude, eta fase horretan zantzu nahikorik ez dago oraindik pertsona horiei ikuspegi judizialek eta modu formalean egozteko zigorgarria den ekintzaren bat egin izana”.

12.- Hori horrela, kontuan hartu beharrekoak dira zer hiru aukera zehaztu diren aurreko puntuetan, erabakitzeko, berariaz, prozedura penalen edo administrazio-zehapenen izapidetzearen zer unetan den bateraezina eredugarritasun-printzipioa kargu publiko bat betetzearekin edo kargu publikoen izendatzearekin, baldin eta karguduna edo izangaia ikertua izaten ari baldin bada –lehen aukerak inputazioaren unea dela adierazten du, bigarrenak ahozko judizioa abiarazten den unea dela eta hirugarren aukerak, berriz, kondena-sententzia edo inhabilitazio-zehapenaren ebazpena ematen den unea dela–, eta Etika Publikorako Batzorde honi egokia iruditzen zaio, hasiera batean beti eta irizpide hori kasu jakin bakoitzera moldatzeko premia ekar dezaketen egoera puntualak alde batera utzita, bigarrenaren aukeraren alde egitea, hura baita hobekien eta proportzioa egokien zainduz bateratzen dituen eredugarritasun publikoaren eskakizunak eta herritarren eskubideei eta bermeei izan behar zaien begirunea. Eta hori guztia egin beharko litzateke, noski, argi eta garbi utzita ez litzatekeela aurreratutako kondena bat edo gerora etorriko den kondena baten aurrerapena izango kargu publiko bat kautela-neurri moduan kargutik kentzea auzitegi eskudunak ahozko judizioa abiatzea erabakitzen duen autoa eman duelako prozedura penal batean, eta bai prebentziozko neurri profilaktiko soila, eredugarritasunaren balioari indarra emateko erabakitakoa, eta, aldi baterako, pertsona horrek zerbitzuan diharduen erakundearen irudi ona zaintzeko hartutakoa; hori horrela, EJK-k 15 artikuluko 5. puntuak arautzen duena kontuan hartuta, “prozedura izapidetzean egiaztatzen bada kargu publikodunak ez duela

erantzukizunik, berriro emango zaio kargua [...] edota dagozkion bitartekoen bidez errehabilitatuko da”

13.- Estatuko Administrazio orokorreko goi-kargudunen jarduera arautzeko legeak aukera ematen die kargu publiko bat eskuratu edo karguan irauteko prozedura penal batean edo administrazio-zehapeneko izapidetze batean sartuta dauden pertsonen, harik eta kondena-sententzia irmo bat edo inhabilitazio-zehapeneko ebazpen bat ematen den arte, baina aukera hori ez da bateragarria Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 28an onartu zuen EJKrekin, estua eta zorrotza baita. Azken kode hori eman da politikaren zentzu etikoa berrezarri eta herritarrek erakunde publikoengan eta haietan lan egiten duten kargu publikoengan izan behar duten konfiantza berreskuratzeko. Ageri-ageriko egoera da hori, eta ez da azalpen-lan handirik behar hura babesteko.

14.- Beste muturrera joz gero, gehiegikeria bat izan daiteke inputazioaren unean finkatzea eredugarritasun-printzipioa eta kargu publiko baterako izendatua izatea edo kargu batean jarraitzea bateraezin direneko momentua, eta erabaki horrek urratu egin dezake, neurri batean, lege-aldaketaren bidez babestu nahi den berme penalen eta prozesu-bermeen kultura –eta bereziki orain, Prozedura Kriminaleko Legea aldatzen ari den garaian, 10. puntuan azaldu den moduan eta xedeekin–.

15.- Ez diogu alferrekoa irizten erabaki honen 12. puntuan zirriboratu dugun aukera kasu bakoitzaren inguruabar zehatzeen arabera aztertu eta moldatu behar litzatekeela azpimarratzeari; izan ere, inputazio batek epai etiko zorrotza sorraraz dezake, baldin eta delitu oso larrien ondoriozkoa baldin bada eta/edo alarma soziala eragiten duten baldintzatan gertatu baldin bada. Aitzitik, ahozko judizioa abiarazteak, kasuan kasu, ez du EPB honen gaitzespenik jasoko, baldin eta bidezko lehia politikorekin lotutako jarduerak sorrarazi badute hura, hau da, beraien izaerarengatik, gure eskumen-esparrutik kanpokoak diren jarduerak.

16.- Erabaki honen 5. puntuan 4/2015 Erabakiaren aipamena egin dugu; bada, kasu honetan, hartan ez bezala, bete egiten dira EJKren 15. artikuluko 5. puntuak arautzen duen egitatezko gertakariarentzat zehaztuta dauden baldintza edo eskakizun guztiak. Kontsultaren egileak EPB honi igorri dion dokumentazioari erreparatuta, ikusten da Instrukzio Epaitegiaren zitazioa jaso duela aurtengo martxoaren 27an, “inputatu gisa” entzuna izateko, “itxura batean ondasun publikoak bidegabe erabili izanaren delitu diren ekintzak egin izanaren erantzule gisa”. Horrenbestez, prozesu penal batean inputatua izan den kargu publiko baten kasua da hau, “haren karguaren funtzio publikoak betetzearekin lotutako ekintzen ondoriozkoa”.

17.- Hala ere, zitazio-zedula eman duen prozedura hori aurretiazko eginbideen fasean dago oraindik. Urrun dago, beraz, ahozko judizioaren abiaraztea, eta une hori da, hasiera batean, eredugarritasun-printzipioaren ondoriozko gaitzespen etikoa gauzatzen hasteko erreferentzia moduan finkatu dugun prozesu-unea.

Bestalde, ez dirudi ikertutako gertakariak larritasun izugarri eta asaldagarriak duenik. Ez dugu auziaren funtsa aurretik epaitzeko asmorik –agintaritza judizialak soilik egin dezake hori, harena baita hori egiteko eskumen osoa–, baina kontsulta-egileak EPB honi helarazi dion idatziak adierazten du kargu publikoa betetzeko izendatua izan aurretik onartu zen dekretu bat betetzera mugatu dela –eta dekretu horren aurka, gainera, ez da errekurtsorik jarri epe- eta forma-baldintzak beteta–, haren aurretik Giza Baliabideen Zuzendaritzako karguak bete zituzten pertsonak arau hori indarrean jarri zen geroztik bete izan duten modu berebean. Arauaren edukia eztabaidagarria izan daiteke eta izan daiteke arau hori betetzeko bestelako modurik, baina horrek ez du garrantzirik erabaki honen oinarrian dagoen jokabidearen zuzentasun etikoa ebaluatzeko.

18.- Administrazioarekiko auzien epaitegiak erabaki du interesdunari zitazioa igortzea auzi penal horretan inputatu gisa parte hartzeko; hori horrela, Epaitegiak abiarazitako ikerketa judizialak, hasiera batean, herritarren batek egindako salaketa soil batek edo partikular batek sustatutako kereila batek baino objektibotasun handiagoa du. Hala ere, Estatuko Kontu Epaitegiak egin du dagoeneko kasuaren instrukzioa eta hauexek dira haren hasierako ondorioak, behin-behineko likidazio-aktan adieraziak: “araukoak dira salaketaren xede diren dietak, prozedura baten baitan eman dira eta justifikatu egin dira kalte-ordaindu daitezkeen kontzeptuak eta lanbide-identifikazioko zenbakiarekin lotu dira haien hartzaileak, kontzeptuak eta zenbatekoak”, eta ondorioz, “salatu diren gertakariak ez dute kontularitzako erantzukizunik sorrarazten, ez baita kalte egiazko, gauzatu eta banakaturik egin izana hautematen Eusko Jaurlaritzaren funtsetan”. Hemen adierazitakoak ez dira, noski, agintaritza judizialak kasu horretan ireki duen prozedura penalean erabakiko duenaren aurrerapena, baina aztertzeko aurkeztu zaigun gaiaren oinarrian dauden gertakarien zuzentasun juridikoari buruzko tesi bat azaltzen dute, eta ezin dugu, gaiaren kontsulta egin duen organoaren garrantzi instituzionalari eta eskumenari erreparatuta, tesi hori alde batera utzi, eredugarritasunak egoera horretan zer betebeharrak dakartzkien zehazteko ebaluazio-iritzi bat egitean.

19.- Azkenik, ezin da nabarmendu gabe utzi, kasu honetan, inputazioa ez dela gertatu eredugarritasunaren betebeharrarekin bateraezina den gizarte-alarmako egoera batean.

Hori guztia aintzat hartuta, hauxe da EPBk aho batez hartutako

ERABAKIA:

- 1.- Interesdunak Justizia Administrazioari laguntzen jarraitu behar du, eta unean-unean bete behar ditu Instrukzio Epaitegiak igortzen dizkion zitazioak inputatu gisa ageri den aurretiazko eginbideen baitan.
- 2.- Ikusita zergatik egin den inputazioa eta aintzat hartuta erabaki honetan aztertu diren alderdiak, betetzen ari den karguari euts diezaioke kontsultaren egileak, harik eta, halakorik gertatzen baldin bada, auzitegi eskudunak ahozko judizioa abiaraztea erabakitzeko autoa ematen duen arte.
- 3.- EPB honek gomendatzen du, prozedura horren baitan egiten ari diren jardura judizialen amaieran ahozko judizioa abiaraztea erabakitzen baldin bada, kargu publikoa kautelazko izaeraz kargugabetzea, EJKren 15. artikuluko 5. puntuan eta erabaki honen 12. puntuan adierazten den moduan.



Josu Iñaki Erkoreka Gervasio
Etika Publikorako Batzordeko burua

Vitoria-Gasteizen, 2015eko apirilaren 21ean